

Hitzaurrea

Deustuko Unibertsitateko (Bilbao) Giza Eskubideen Institutuak Ekintza Humanitario eta Giza Eskubideen Urtekariaren lehen argitalpeneko bolumen hau aurkezten du. Argitalpen honek Ekintza Humanitarioen eta Giza Eskubideen inguruan diharduten akademiko, profesional eta bestelako pertsonen praktiken, esperientzien eta ikerketen hausnarketa eta trukerako esparru bat eskaintzeko helburua du. Urtekariak, bigarren ale honekin, arlo honetako pentsamendu kritikoa sortzeko leku izan nahi du, esparru akademikokoentzat ez ezik, lan horretan estatu zein nazioarte mailan diharduten gizarte eragileentzat ere.

Prestakuntza arloan, Institutuaren erreferenterik nagusiena, duela 11 urtetik hona Bilbon eskaintzen den eta Europako NOHA Sareko (Network On Humanitarian Assistance) beste sei unibertsitateekin koordinatuta dagoen Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Masterra dugu. 11 urte hauetan, 200 ikaslek baino gehiagok egin dute ikastaroa Deustuko Unibertsitatean. Gehienak laguntza humanitarioan, giza eskubideen defentsan edo garapenerako lankidetzan ari dira lanean. Urte hauetan zehar, Masterraren edukiak eta egitura moldatuz joan dira, esparru humanitarioan sortzen ziren beharrezan erantzuteko. Aldaketa hauek eguneroko beharrezanekin lotura estua duten sareei esker egin ahal izan dira, hain zuzen ere, ekintza humanitarioan zuzenean diharduten erakundeei eta batez ere Gobernu Kanpoko Erakundeei esker, baita zenbait irakaskuntza fororen bitartez ere.

Bigarren urtekari honen edukia hiru ekarpen motarekin hornitu da: ikerketetariko batzuk Institutuko taldeak berak eginak dira; beste batzuk Institututik kanpoko pertsonen baina ekintza humanitarioan esperientzia zuzena dutenek egindakoak dira;

rretako graduatuek egindako ikerlanak bildu eta gaurkotzen dituzte beste batzuek. Lanik gehienek ikerketa edo artikulu monografiko itxura badute ere, Interneten ekintza humanitarioari buruz dauden baliabide nagusien aipamen bat aurkitu dezakegu.

Institutuak joan den ikasturtean burutu dituen jarduerarik nabarmenenen aurkezpenarekin osatzen den Urtekari hau Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntzarekin (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila) argitaratu ahal izan da.

Derechos de autor (Copyright)

Los derechos de autor de esta publicación pertenecen a la editorial Universidad de Deusto. El acceso al contenido digital de cualquier número del Anuario de Acción Humanitaria y Derechos Humanos (en adelante Anuario) es gratuito inmediatamente después de su publicación. Los trabajos podrán descargarse, copiar y difundir, sin fines comerciales y según lo previsto por la ley. Así mismo, los trabajos editados en el Anuario pueden ser publicados con posterioridad en otros medios o revistas, siempre que el autor indique con claridad y en la primera nota a pie de página que el trabajo se publicó por primera vez en el Anuario, con indicación del número, año, páginas y DOI (si procede). La revista se vende impresa Bajo Demanda.